


>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Federazio Koordinatzalea  
Federación Coordinadora de Personas  
con Discapacidad de Gipuzkoa

elkartu, futuro  
2019 >>>



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Federazio Koordinatzalea  
Federación Coordinadora de Personas  
con Discapacidad de Gipuzkoa

elkartu, futuro  
2019 >>>



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



05

## 40 urteren ondoren, zer gogoeta egin dezakegu eta zer dago oraindik egiteko?

¿Pasados 40 años,  
qué balance se  
puede hacer, y qué  
queda por hacer?



Zalantzak gabe, **elkartu** elkarteari esker, Gipuzkoako gizartea inklusiboagoa da orain 70eko hamarkada hasierakoa baino. Garai hartan hasi zen eratzen, hain zuzen, Federazio Koordinatzailea.

Orditik, ekintza ugari gauzatu eta une gogoangarri asko bizi izan ditugu, baina hori bezain garrantzitsua izan zen desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak defendatu eta sustatzerakoan inspirazio-iturri izan diren printzipioen defentsa eta ezarpena.

Dena den, daukagun erronkarik garrantzitsuena, hain zuzen, eskubideen adierazpen eta aintzatespen hutsa aplikazio erreala eta benetako bihurtzea da. Errealitate horrek aukera emango luke Federazio Koordinatzailea eratu zen unetik bertatik ezarri ziren helburuak lortu direla ondorioztatzeko.

La existencia de **elkartu** ha contribuido sin duda a construir una sociedad guipuzcoana más inclusiva que la existente a comienzos de los años 70, que es cuando se comenzó a gestar la Federación Coordinadora.

Han sido muchas las actuaciones desarrolladas y los hitos alcanzados, pero tan importante como eso ha sido la defensa y aplicación de unos principios que han servido de inspiración en la defensa y promoción de los derechos de las personas con discapacidad física.

Sin embargo, el mayor reto que se presenta es precisamente transitar de la mera declaración y reconocimiento de derechos a su aplicación real y efectiva, realidad que permitiría concluir que se habrían alcanzado los objetivos planteados desde el mismo momento en el que se gestó la Federación Coordinadora.

# Historia

## LA HISTORIA

**elkarturen historia desgaitasuna duten pertsona ugariren konpromisoaren kronika da. Begirada giza eskubideetan jarrita eta edozein diskriminazio-mota baztertuz elkarte-mugimenduaren bidez heritar guztien aukera-berdintasuna bermatuko duen gizartearen erakuntzan aurrera egiteko lan egin duten pertsonen kronika.**

70eko hamarkadatik hasita, pertsona eta elkarte horien helburua desgaitasuna duten pertsonak baztertzan zituen gizartea erabat eraldatzea izan zen, beste errealitate batera iristeko. Errealitate berri horretan, ekitatearen eta justizia sozialaren berezko balioa izango litzateke aniztasuna, eta harreman sozialen eta giza harremanen ezaugarria izan beharko litzateke.

Ideia horretan aurrera egiteko sortzen Federazio Koordinatzailea, desgaitasun fisiko duten pertsonen kolektiboak adierazteko, parte hartzeko, ordezkatzeo eta aldarrikatzeko bidea eduki zezan, ekintzen bidez gizartean, instituzio publikoetan eta desgaitasuna duten pertsonengan eragiteko. Elkartearen konpresa eta konpresa pertsonala betetzeko, hainbat une gogoangarri eta ekintza gauza-

La historia de **elkartu** es la crónica del compromiso de muchas personas con discapacidad física que, con la mirada puesta en los derechos humanos y a través del movimiento asociativo, han trabajado por avanzar en la construcción de una sociedad que garantice la igualdad de oportunidades de toda la ciudadanía desterrando cualquier tipo de discriminación.

DESDE COMIENZOS DE LA DÉCADA DE LOS 70 ESTAS PERSONAS Y ASOCIACIONES SE PROPUSIERON TRANSFORMAR RADICALMENTE UNA SOCIEDAD QUE MARGINABA A LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD, PARA DAR PASO A UNA REALIDAD EN LA QUE LA DIVERSIDAD FUERA UN VALOR INHERENTE A LA EQUIDAD Y JUSTICIA SOCIAL QUE HA DE CARACTERIZAR LAS RELACIONES SOCIALES Y HUMANAS.

Para avanzar en esa idea se conformó la Federación Coordinadora como cauce de expresión, participación, representación y reivindicación del colectivo de personas con discapacidad física, proyectando su actuación sobre la misma sociedad, las instituciones públicas y las propias personas con discapacidad. El compromiso personal y asociativo se ha materializado a lo largo de estas cuatro décadas en multitud de hitos y actuaciones en ámbitos tan diversos como la acce-

1970



tu dira lau hamarkadotan, askotariko eremuetan, adibidez: irisgarritasuna, hezkuntza, empleua, etxebizitza, teknologia eta lagunza-produktuak, bizi-modu independentearen eredu etab.

Hala ere, gauzatutakoa bezain garrantzitsua izan da burutzeko aukeratu den bidea. Beraz, **elkartuk** izandako ibilbide oparoak printzipio sendoak izan ditu inspirazio-iturri, Federazio Koordinatzailearen jatorrian bertan sortutakoak, eta normalizazioaren bilaketa eta aukera-berdintasuna izan dira printzipioen ezaugarriak. Bainaztertu egin ziren, batetik, paternalismoa, asistentzialismoa edo txarto ulertutako elkartasuna oinarri zituzten jarrerak edo jardunbideak; eta bestetik, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bereizketa ekarriko luketen jarrera edo jardunbideak.

Horrek guztiari esker, kolektiboaren berdintasun- eta inklusio-kotak eta bizi-kalitatea izugarri hobetu dira, eta ondorioz, lagungarria izan da gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa eraikitzea. Gizarte-eraldaketa hori gauzatzeko, bizi-eremu eta eremu sozial guztietan eskubideak lortu, aintzatetsi eta defendatu ditugu, eta doako baliabideek eta politika asistentzialistek osatutako errealtatea gainditzeko pausuak eman ditugu.

Hala ere, elkarte-mugimenduak berrogei urteotan egindako ibilbidean, ez du lortu eskuratutako eskubideen erabateko gauzapenik, benetako aukera-berdintasunik edo normalizazioaren eta gizarte-inklusioaren printzipioak oinarri zituen hainbeste irrikatutako politika publikorik.

sibilidad, educación, empleo, vivienda, tecnología y productos de apoyo, modelo de vida independiente, etc.

Sin embargo, tan importante como lo realizado, ha sido el camino elegido para llevarlo a cabo. Así, la densa actividad desarrollada por **elkartu** ha estado inspirada por unos firmes principios que fueron cimentados en los mismos orígenes de la Federación Coordinadora, y que han estado caracterizados por la búsqueda de la normalización y la igualdad de oportunidades, alejándose de cualquier actitud o práctica sustentada en el paternalismo, asistencialismo o solidaridad mal entendida, o cuyo resultado fuese la segregación personal y social de las personas con discapacidad física.

Todo ello ha permitido avanzar de manera considerable en las cotas de

igualdad, inclusión y calidad de vida del colectivo, contribuyendo en consecuencia a construir una sociedad más justa y equitativa. Esta transformación social se ha llevado a cabo a través de la conquista, reconocimiento y defensa de derechos en todos los ámbitos vitales y sociales, dando pasos en la superación de una realidad que se significaba por la graciabilidad de los recursos y el carácter asistencialista de las políticas.

Sin embargo, el recorrido de cuatro décadas protagonizado por el movimiento asociativo no ha visto alcanzar la plena efectividad de los derechos conquistados, la verdadera igualdad de oportunidades o las tan anheladas políticas públicas inspiradas en los principios de normalización e inclusión social.



Oraindik ere, sarritan, desgaitasuna duten pertsonak ezin dira eraikin, gune, garraio, ondasun edo zerbitzuetara sartu edo ezin dituzte horiek erabili, irisgarritasun unibertsalerako eskubidea urratzen delako. Ondorioz, bazterketa-egoerak jasaten dituzte. Desgaitasuna duten pertsonek oraindik ere, sarritan, ezin izaten dute hezkuntza-sistema benetan inklusiboan ikasi, edo ahal izan arren, ez daukate beharrezko baliabide pertsonal, tekniko edo materialik. Ondorioz, hezkuntza inklusiborako duten eskubidea urratzen zaie. Oraindik ere, sarritan, desgaitasuna duten pertsonak izarra bereizlea duen enplegu babestuaren eremuan lanean hasi eta lan horri eutsi behar izaten diote. Ondorioz, lan-inguru ireki, inklusibo eta irisga-

rrian lan egiteko eskubidea urratzen zaie. Oraindik ere, sarritan, desgaitasuna duten pertsonen aukera bakarra instituzionalizazioa izaten da, horixe baita sistemak berariaz diseinatu eta ematen dien aukera bakarra. Ondorioz, urratu egiten zaie bizilekua eta non eta norekin bizi askatasunez aukeratzeko eskubidea.

Son innumerables las situaciones en las que las personas con discapacidad física todavía no pueden acceder o disfrutar de edificios, espacios, transportes, bienes o servicios por la vulneración del derecho a la accesibilidad universal, siendo sometidas por tanto a situaciones de discriminación. Son innumerables las situaciones en las que las personas con discapacidad física todavía no pueden acceder a un sistema educativo realmente inclusivo o, aun accediendo, no cuentan con los recursos personales, técnicos o materiales necesarios, vulnerándose en consecuencia su derecho a la educación inclusiva. Son innumerables

todavía las situaciones en las que las personas con discapacidad física se ven obligadas a acceder y mantenerse en el ámbito del empleo protegido de carácter segregador, vulnerándose en consecuencia su derecho a trabajar en un entorno laboral que sea abierto, inclusivo y accesible. Y son innumerables las situaciones en las que las personas con discapacidad física todavía se ven abocadas a la institucionalización como única alternativa deliberadamente diseñada y proporcionada por el sistema, viendo vulnerado su derecho de elegir libremente su lugar de residencia y dónde y con quién vivir.



Beraz, ondoriozta daiteke, nahiz eta eskubideen ezagutza formala eta ondorengo garapenerako oinarriak finkatzea lortu, bide luzea dugula egiteko oraindik, aintzatetsitako eskubideak erabat gauzatutako eskubide bihur daitezten. Bide horretan aurrera egiteko, funtsezkoa da Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aintzatetsitako printzipioak eta eskubideak barneratzeari. Izen ere, berebiziko garrantzia duen lege-tresna da, eta benetako aplikaziorik gabeko adierazpen erretorikoen zerrenda hutsa izan ordez, politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko uko egin ezinezko inspirazio-iturria izan behar da. Horretarako, nahitaezkoa da desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eragina duten eremuetan nola edo hala parte hartzen duten eragile guztien konpromisoa eta lana, eragileen artean behar den konplizitatea, elkarlana eta koordinazioa indartuz.

Cabe deducir, por tanto, que a pesar de haber alcanzado el reconocimiento formal de derechos y el afianzamiento de las bases para su posterior desarrollo, queda un largo camino por recorrer para concluir que se ha transitado de los derechos reconocidos a los derechos plenamente materializados. Para avanzar por esta senda resulta fundamental interiorizar los principios y derechos declarados en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, un instrumento legal de vital relevancia que,

lejos de recibir el tratamiento de mera relación de retóricas declaraciones carentes de aplicación efectiva, ha de servir de irrenunciable inspiración en el diseño, ejecución y evaluación de las políticas públicas. Para ello, resulta imprescindible el compromiso y trabajo de todos los agentes que, de una manera u otra, intervienen en los diferentes ámbitos que inciden en los derechos de las personas con discapacidad física, debiendo consolidarse la necesaria complicidad, colaboración y coordinación entre los mismos.



Hala, gizarte osoak jarrera asistenzialistak edo paternalistak behin betiko baztertu behar ditu, ez baita batere lagungarria herritarrek berdin-tasunean oinarritutako hartu-emana-kizateko. Zalantzak gabe, elkarte-mugimenduak egin dituen kontzientzia-zio-kanpaina ugariak, eta baita komunikabideetan etengabe izandako jendaurreko agerraldiak ere, lagun-garriak izan dira desgaitasuna duten pertsonek jasaten duten gizarte-bazterketa gainditzeko.

Dena den, indarrean dago oraindik ere, desgaitasuna duten pertsonen egoerari buruzko eskubideen ikuspe-gia gizarteak bere egitearen erronka, eta haien errealitatea eta beharrizanak euren eskumeneko gaitzat soilik ez hartza. Persona guztiei dagokie berdintasunik eza baztertuko duen gizarte-a sortzea eta, ondorioz, pertso-na guztien ardura da giza harremanak eta gizartearen forma bera aberasten duen alderditzat hartza aniztasuna. Gizarteak ezin du amore eman eta herriaren zati bat baztertua izaten ohitu, ezin dituztelako eraikin, gune, garraio edo gailu teknologiko ugari erabili; edo herriaren zati horrek gehiegizko ahalegina egin behar duelako hezkun-

tza-sistemara sartu eta bertan ikaste-ko behar dituzten lagunza pertsonal eta teknikoak lortzeko; edo sistemati-koki lan-jarduera eremu bereizlean eta duintasunaren kontzeptua bera kon-trajartzen duten baldintzetan lan egin behar dutelako; dedo nahitaez insti-tuzionalizazioa jasan behar dutelako, beren existentziari buruzko erabakiak hartzeko oinarrizko gaitasuna kenduz.

Beraz, gizarte osoak egin behar dio kontra desgaitasuna duten pertson-e-kiko elkartasun eta arreta paternalis-taz ezkutatutako jarrerari, politikei edo neurri bereizleei, gizarte inklusiboaren barruan lortu nahi den normalizazioa-ren helburua eta pertsona guztien berdintasuna are gehiago arrakala-tzen baitute.

Así, la sociedad en su conjunto ha de desterrar definitivamente actitudes asistencialistas o paternalistas que en nada favorecen la interacción de la ciu-dadanía en condiciones de igualdad. Resulta indudable que la multitud de campañas de concienciación llevadas a cabo desde el movimiento asociativo, junto con las permanentes apariciones públicas en los medios de comunica-ción, han contribuido a superar la mar-ginación social a la que se abocaba a las personas con discapacidad.

Sin embargo, permanece vigente el reto de que la sociedad adopte una vi-sión de derechos con respecto a la si-tuación de las personas con discapa-cidad, y deje de considerar su realidad y necesidades como cuestiones de su exclusiva competencia. Corresponde a todas las personas construir una socie-dad que destierre las desigualdades y, en

consecuencia, compete a todas las per-sonas valorar la diversidad como factor enriquecedor de las relaciones humanas y de la propia configuración social.

La sociedad no puede resignarse a naturalizar que una parte de la ciu-dadanía sea discriminada por no poder acceder a muchos edificios, espacios, transportes o dispositivos tecnológi-cos, o que tenga que conquistar con un esfuerzo desmedido los apoyos personales y técnicos necesarios para acceder y permanecer en el sistema educativo, o que sistemáticamente se vea obligada a desarrollar su actividad laboral en un ámbito que le segregá y en condiciones contrapuestas al mis-mo concepto de dignidad, o que se vea irremediablemente abocada a la institucionalización siendo privada de las más elementales facultades de decisión sobre su propia existencia.

Se requiere por tanto, que la sociedad en su conjunto se rebela frente a las actitudes, políticas o medidas segrega-doras que, encubiertas de solidaridad y atención paternalista a las personas con discapacidad, agrietan más si cabe el objetivo de la normalización y la pre-tendida igualdad de todas las personas en el marco de una sociedad inclusiva.



Erakunde publikoek ere eginkizun era-bakigarria dute edozein desparekota-sun-motari uko egingo dion gizartea lortzeko lanean. Desgaitasunaren ar-loko politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko ardura duten erakunde publikoen aurrean desgaitasuna du-ten pertsonak ordezkatzea denez **el-karturen** zeregin garrantzitsuenetako bat, nahitaezkoa da erakunde publi-koek politika horien ikuspegi inklusi-boa beren gain hartzea behingoz.

Bide hori hartzeko, ikuspegi asisten-tzialistak alde batera utzi behar dira nahitaez, ez baitute lekurik Desgai-tasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak eratzen duen egoera berrian, eta ahultasun bere-ziko egoeran dagoen kolektiboaren gizarte-bazterketa areagotu baino ez baitute egiten. Hortaz, ez zaio des-gaitasuna duten pertsonentzako ba-liabideak pilatzeari ekin baino lehen, iraganera atxikita dauden ikuspegi-ker etorkizunetara bideratzen gaituz-ten modu kritikoan hausnartu behar dugu, ikuspegi horiek ez baitatoz bat Konbentzioko printzipio eta eskubi-deekin.

Las instituciones públicas juegan tam-bién un decisivo papel en la consecu-ción de una sociedad que renuncie a cualquier tipo de desigualdad. Siendo una de las principales funciones de **elkartu** la de representar a las perso-nas con discapacidad física antes las instituciones públicas que tienen respon-sabilidad en el diseño, ejecución y evalua-ción de las políticas en materia de disca-pacidad, resulta irrenunciable que las mismas asuman de una vez un enfoque inclusivo de las mencio-nadas políticas.

Esta orientación implica necesaria-mente abandonar visiones asisten-cialistas que no tienen cabida ante el nuevo escenario que configura la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, y que no hacen sino ahondar la segregación y exclusión social de un colectivo en especial situación de vulnerabilidad. No cabe, por tanto, perseverar en la acumulación de recursos para las perso-nas con discapacidad física sin una previa reflexión crítica sobre el ho-riente al que nos encaminan los en-foques anclados en el pasado y que en nada se alinean con los principios y derechos de la Convención.



Erakundeek erantzun egin behar dute nazioarteko lege-tresnak ezarritako errealtitate berriaren aurrean, politika, neurri eta baliabideak berriz sakonki eratzera behartzen baititu. Konbentzioa baztertzeari edo aintzat ez hartzeari utzi behar diote inertzia hutsagatik iraganeko eskemen bidez baliabideak kudeatzen dituzten bitartean, berdintasunerantz eta inklusiorantz bideratutako printzipioak beren gain hartu, barneratu eta sustatzeko eta horiek desgaitasuna duten pertsonentzako politika, neurri, zerbitzu eta prestazioetan txertatzeko.

Horrek esan nahi du desgaitasuna duten pertsonak zerbitzuen erabiltzaile, arretaren subjektu edo azterketarako objektu huts bezala ikusteari utzi behar diogula, eurei dagozkien erabaki guztiak hartzeko eta beren gain hartzeko gaitasun eta eskubide osoa aintzatesteko. Esan nahi du desgaitasuna duten pertsonek ez dutela erabaki

behar Administrazioak desgaitasuna duen pertsonaren existencia zainteko balizko ardura duela sinetsita, eta beharrizanen zerbitzura jarri behar direla, horiei baliabide publiko guztiekin erantzun integral eta zeharkakoa eskainiz. Laburbilduz, ikuspegi berri honen uko egin behar dio desgaitasuna duen pertsona arretaren erdigunetzat hartzeari, erabakien erdigunetzat aintzatesteko.

Ikuspegi berri hau ez da posible izango erakunde publikoek ez badute berengain hartzen Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetara hurbildu eta haien konplizitateak eratu behar dituztela. Erakunde horien ezaugarria zeregin eraldatzailea da, elkartetako kideak eta kudeatzaileak elkartearren jardueraren helburu diren pertsona berberak baitira. Beraz, Hirugarren Sektore Sozialaren eginkizuna erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketa hutsera lotzeak urrundu egi-

Las instituciones han de reaccionar ante la nueva realidad implantada por un instrumento legal de carácter internacional que obliga a una profunda reconfiguración de políticas, medidas y recursos. Deben dejar de ignorar o simplemente ver pasar la Convención mientras gestionan recursos bajo esquemas del pasado por mera inercia, para asumir, interiorizar y promover sus principios orientados a la igualdad y la inclusión, y enraizarlos en las políticas, medidas, servicios y prestaciones dirigidos a las personas con discapacidad.

Esto implica dejar de ver a las personas con discapacidad física como meras personas usuarias de servicios, sujetos de atención u objetos de estudio, para reconocer su plena capacidad y derecho para adoptar y asumir todas las decisiones que les incumban. Implica renunciar a decidir por las personas con discapacidad

bajo la creencia de que la Administración tiene una supuesta responsabilidad de velar por la propia existencia de la persona con discapacidad, para ponerse al servicio de unas necesidades a las que debe dar respuesta integral y transversal con todos los resortes públicos. En definitiva, este nuevo enfoque debe renunciar a considerar a la persona con discapacidad física como centro de la atención, para reconocerla como centro de las decisiones.

Nada de este nuevo enfoque será posible si las instituciones públicas no asumen que han de acercarse y tejer complicidades con las organizaciones del Tercer Sector Social que se caracterizan por su función transformadora por estar integradas y gestionadas por las propias personas para cuya inclusión desarrollan su actividad. Así, vincular el papel del Tercer Sector Social a la mera gestión de servicios



ten ditu erakundeak errealtatetik eta etengabe eraldatzen ari den gizartera derrigorrez egokitu behar den gobernanza-eredutik. Informazio hutsa ematen duten guneak edo instituzionagusitasunean oinarritutako harremanak ezaugarri dituztenak gainditu eta desgaitasunaren arloko politiken diseinuan Hirugarren Sektore Sozialaren partaidetza errealt eta benetakoa bermatzeak aukera emango du errealtate eta beharrizan sozial berriei erraz eta eraginkortasunez aurrea hartze-ko, horretarako baliabide egokiak eta ikuspegi inklusiboa oinarritzat hartuta antolatutako baliabideak bermatuz.

Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen eginkizuna da gizarte eraldatzea, desparekotasunak baztertu eta herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzeko. Zalantzak gabe, era-kunde horiekin harreman estu eta era-ginkorragoa eraikitzeak aintzatespena eta erakundeen lagunza handiagoa eskatzen du, behar diren baliabideak bermatuz, ezbairik gabe baliabide edo zerbitzuaren kudeaketa hutsa baino erabakigarriagoa eta atzeraezinagoa den lana egiteko. Beraz, desgaitasunaren eremuan lan egiten duten Hiru-

garren Sektore Sozialeko erakundeak aintzatetsi beharko lirateke, ez bakarrik egiten dutenagatik, baita duten eginkizunagatik eta egiteko moduagatik ere.

Hain zuzen ere, Hirugarren Sektore Sozialak eginkizun erabakigarria eduki behar du gizarte erabat inklusiboa lortzeko behar den eraldaketa sozialaren prozesuan. Elkarte-mugimendu tradicionalaren funtsezko elementuak, batetik desgaitasuna duten pertsonen ordezkaritza, eta bestetik, eragiteko eta eraldaketarako ondorengo ekin-tzak, ezin daitezke, inolaz ere, baliabi-deak ematearen menpe egon. Nahiz eta Hirugarren Sektore Sozialeko era-kundeek euren baliabide pertsonal eta teknikoen zati bat erantzukizun publi-koko zerbitzuak eman eta kudeatze-ko erabiltzea bidezkoa eta beharrez-koia izan, sarritan desgaitasuna duten pertsonen beharrizanei aurrea hartze-ko gaitasunetik sustatzen dituzte eta eginkizun horren nagusitasunak gai-tasun eraldatzalea ahuldu baino ez du egiten. Ondorioz, desgaitasunaren arloko politiken ikuspegi inklusiboaren defentsa eta sustapena ere ahuldu egiten du.

de responsabilidad pública aleja a las instituciones de la propia realidad y de un modelo de gobernanza que necesariamente ha de adecuarse a una sociedad en permanente transformación. Garantizar la participación real y efectiva del Tercer Sector Social en el diseño de las políticas en materia de discapacidad, superando espacios meramente informativos o caracterizados por una relación basada en la superioridad institucional, permitiría anticiparse de manera más ágil y eficaz a las nuevas realidades y necesidades sociales, garantizando para ello los recursos adecuados y configurados desde la óptica inclusiva.

Sin duda, la construcción de una relación más estrecha y eficaz con las organizaciones del Tercer Sector Social que tienen como función la transformación social para desterrar las desigualdades y garantizar la igualdad de oportunidades de toda la ciudadanía, requiere de un mayor reconocimiento y apoyo institucional, garantizando los recursos necesarios para desarrollar una labor que, sin duda, resulta más decisiva e irrenunciable que la mera gestión de un recurso o servicio. Por tanto, habría de

reconocerse a las entidades del Tercer Sector Social que trabajan en el ámbito de la discapacidad no solo por lo que hacen, sino por lo que representan y por su manera de hacer.

Precisamente el Tercer Sector Social ha de desempeñar un decisivo rol en el proceso de transformación social requerido para alcanzar una sociedad plenamente inclusiva. La función representativa de las personas con discapacidad para la posterior actuación de incidencia y transformación, que constituyen los elementos esenciales del tradicional movimiento asociativo, de ninguna manera pueden estar subordinados a la prestación de recursos. Siendo legítimo y hasta necesario que las organizaciones del Tercer Sector Social destinen parte de sus recursos personales y técnicos a la prestación y gestión de servicios de responsabilidad pública, en muchas ocasiones impulsados por las mismas desde la capacidad de anticipar las necesidades de las personas con discapacidad, la prevalencia de dicha función no hace sino debilitar la competencia transformadora y, en consecuencia, la defensa y promoción de

Hala, enpleguaren eremuan argi ikus daiteke Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak ezartzen dituen jarraibideak benetan eta modu errealean aplikatzeko etsairik handienak bihur daitezkeela desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeak; izan ere, politika publiko bereizleen konplize bihur daitezke, beren interesak jarriz lan-inguru ireki, irisgarri eta inklusiboan lan egiteko eskubidearen gauzapenean aurrera egin ahal izateko.

Horregatik funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonen partaidetza zuzena izan eta hori indartzea Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako zuzendaritza-organoetan eta talde profesionaletan. Horrez gain, erakundeen zeregin eraldatzailea eta eragiteko eginkizuna bultzatu behar dira, eskubideak defendatu eta sustatzeko lana bilduko duen ordezkaritza sendoa oinarritzat hartuta, desgaitasuna duten pertsonen herritar-interesak uko egin ezinezko ardatz gisa jarriz, erakundearen beraren interesen gainetik.

**elkartuk**, desgaitasuna duten Gipuzkoako pertsonak ordezkatu eta haien

eskubideak defendatzen dituen Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeadeenez, erronka izugarria du aurrean: desgaitasunaren arloko politiken eta desgaitasuna duten pertsonen errealtitatearen ikuskera sozialaren jauzi kualitatiboa sustatzea, zabal aintzatetsitako eskubideen benetako gauzapenean segurtasunez aurrera egin ahal izateko.

Beraz, lau hamarkadako aldi honetan eskubideak defendatu eta sustatzeko aldarrikapen-lana egin da eta eskubideen aintzatespen handia lortu dugu desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizi-kalitatean eragina duten eremuetan. Hurrengo urteetako testuinguruan, ez-betetze sistemikoak eta gauzaren praktikoaren gabezia izango ditugu, eta horrek Federazioaren jarduera eraldatzailea areagotzeko beharra dakar, benetako inklusio eta berdintasunezko egoera errealtitate bihurtzeko, gaur egun ameskeria hutsa izan arren. Horretarako, Federazioak erronka hauei egin behar die aurre, besteak beste:



un enfoque inclusivo de las políticas en materia de discapacidad.

Así, el ámbito del empleo es un claro ejemplo de como las propias organizaciones que representan a las personas con discapacidad pueden convertirse en el mayor enemigo de la aplicación real y efectiva de las orientaciones previstas en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, convirtiéndose en cómplices de políticas públicas de carácter segregador al hacer prevalecer los intereses propios sobre la transformación de las políticas de empleo para avanzar en el cumplimiento del derecho a trabajar en un entorno laboral abierto, accesible e inclusivo.

Es por ello que resulta fundamental conservar y fortalecer la participación directa de las propias personas con discapacidad en los órganos rectores y en los equipos profesionales de las entidades del Tercer Sector Social, e impulsar su función transformadora y de incidencia desde una representación sólida que aglutine la labor de defensa y promoción de derechos, situando como eje irrenunciable los intereses ciudadanos de las personas con discapacidad sobre los propios de la organización.

**elkartu**, como organización integrante del Tercer Sector social que representa y defiende los derechos de las personas con discapacidad física de Gipuzkoa, tiene ante sí el enorme reto de promover un salto cualitativo de las políticas en materia de discapacidad y de la misma concepción social de la realidad de las personas con discapacidad, de tal manera que permita avanzar decisivamente en la materialización efectiva de unos derechos ampliamente reconocidos.

Superado por tanto un período de cuatro décadas caracterizado por la labor reivindicativa en la defensa y promoción de derechos, y alcanzado un amplio reconocimiento de los mismos en los diferentes ámbitos de incidencia en la calidad de vida de las personas con discapacidad física, se presenta un contexto de incumplimientos sistémicos y de ausencia de materialización práctica que hacen necesario redoblar la actividad transformadora de la Federación para convertir en realidad un escenario de inclusión e igualdad efectivas que, actualmente, constituyen un mero espejismo. Para ello, la Federación ha de afrontar, entre otros, los siguientes retos:



- Aukera-berdintasun eta justizia sozialaren defentsaren aldeko konpromiso pertsonala eta elkarte-konpromisoa finkatu eta sustatzea.
- Federazioa sortu zen unetik bertatik inspirazio-iturritzat izandako eta elkartearren ibilbidearen lau hamarkadetan zehar sustatutako printzipioen aitzindari izatea eta horiek defendatzea.
- Gizartearren eta politikaren arloa eraldatu eta horietan eragiteko lanean sakontzea, baliabide eta zerbitzuen eremuan, funtsean, berrikuntzarako zeregin aitzindari eta sustatzailea betez, desgaitasuna duten pertsonen beharretara aplikatuta.
- Desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituen elkarre-mugimenduaren bultzadaren eta koordinazioaren buru izatea, eta baita Federazioaren inspirazio-iturri izan diren printzipioen barneratze-lanen buru ere.
- Gobernantza-eredu berri bat sustatzea desgaitasunaren alorreko

- politiketan, desgaitasuna duten pertsonen eta haien ordezkatzen dituzten elkarteen partaidetza erreala eta benetakoa bermatzeko.
- Politika inklusiboak diseinatu eta garatzerakoan eginkizun erabakigarria eduki dezaketen eragile sozial eta politikoekin benetako elkarlana sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskuideei buruzko Konbentzioan aintzatesten diren printzipoak eta eskubideak Gipuzkoan benetan aplika daitezzen sustatzea.
- Indarreko esparru juridikoan aintzatesten zaizkien eskubideak bermatu eta benetan gauzatzeko tresna berriak sustatzea, gaian esku menak dituzten eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean aritz.
- Desgaitasuna duten pertsonen beharizanei buruz informazioa eman, orientazioa eskaini eta esku hartzeko lanetan erreferentziazko erakundearen izaera finkatzea, eta zerbitzu publikoen eraldaketa sus-

- Consolidar e impulsar el compromiso personal y asociativo por la defensa de la igualdad de oportunidades y de la justicia social.
- Abanderar y defender los principios inspiradores de la Federación construidos desde el primer instante de su gestación y promovidos a lo largo de sus cuatro décadas de trayectoria asociativa.
- Profundizar en la labor transformadora y de incidencia social y política, desempeñando en el ámbito de los recursos y servicios un papel fundamentalmente precursor y promotor de la innovación aplicada a las necesidades de las personas con discapacidad física.
- Liderar el impulso del movimiento asociativo representativo de las personas con discapacidad física, así como su coordinación e interiorización de los principios inspiradores de la Federación.
- Promover un nuevo modelo de gobernanza en las políticas públicas de discapacidad que garantice la

- participación real y efectiva de las personas con discapacidad física y de las entidades que les representan.
- Promover una colaboración efectiva con los diversos agentes sociales y políticos que pueden desempeñar un papel decisivo en el diseño y desarrollo de políticas inclusivas.
- Impulsar la aplicación efectiva en Gipuzkoa de los principios y derechos reconocidos en la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad.
- Promover nuevos instrumentos para la garantía y efectivo cumplimiento de los derechos reconocidos en el marco jurídico vigente, a través de la colaboración con los diversos agentes públicos y privados con competencias en la materia.
- Consolidar la condición de entidad referente en la labor de información, orientación e intervención en relación a las necesidades de

tatzea, horiek erantzukizuna beren gain har dezaten, arretaren integralasun eta zeharkakotasunaren printzipoetan oinarrituz.

- Desgaitasuna duten pertsonen partaidetza sustatzea ordezkaria-jardueran eta Federazioko jardueretan.
- Desgaitasuna duten pertsonen talentua, ezagutza eta gaitasuna kontuan har daitezen sustatzea, federazioaren jardueran eta eraldaketa sozialaren eginkizunean parte har dezaten.
- Ikerketa soziala sustatzea desgaitasunaren arloko ezagutza sortu eta besteei helarazteko tresnatzat, ezagutza eta berrikuntzaren arloko erakunde eta eragileekin elkarlana bultzatzaz.
- Komunikazio eta informazioaren teknologien aplikazioa sustatzea Federazioaren jarduera eraldatzai- le eta aldarrikatzailean; era berean, horien ezagutza eta erabilera sustatzea desgaitasuna duten pertsonen artean, ahalduneko eta komunitatean parte hartzeko tresnatzat erabil dezaten.

Laburbilduz, gizarte inklusiboa bermatzeko lortu diren eskubideen gauzaren erreal eta benetakoan modu erabakigarrian aurrera egin ahal izateko, desgaitasuna duten pertsonen banakako konpromisoa behar da giza eskubide eta berdintasunaren defentsaren alde, ezagutza teknikoan eta partaidetzapeko ordezkagarritasunean oinarritutako eraldaketa soziala lortzeko jardungo duen elkarte-mugimenduaren bidez bideratuta, gobernanza-publiko berriaren esparruan.

las personas con discapacidad física, promoviendo asimismo una transformación de los servicios públicos con el objeto de que éstos asuman esta responsabilidad bajo los principios de integralidad y transversalidad de la atención.

- Promover la participación de las personas con discapacidad física en la actividad representativa y en el conjunto de actuaciones de la Federación.
- Impulsar la incorporación de talento, conocimiento y capacidad de las personas con discapacidad física con el objeto de implicar su participación en la actividad federativa y en la propia función de transformación social.
- Promover la investigación social como instrumento de generación y transferencia de conocimiento en materia de discapacidad, impulsando la colaboración con las instituciones y agentes del conocimiento y la innovación.
- Impulsar la aplicación de las tecnologías de la información y la comunicación en la actividad trans-

formadora y reivindicativa de la Federación, así como su conocimiento y utilización entre las personas con discapacidad física como instrumento de empoderamiento y de participación en la comunidad.

En definitiva, sólo desde el compromiso individual de las propias personas con discapacidad física por la defensa de los derechos humanos y la igualdad, canalizado a través de un movimiento asociativo que actúe en clave de transformación social apoyado en el conocimiento técnico y una representatividad participada en el marco de una nueva gobernanza pública, será posible avanzar de manera decisiva en la materialización real y efectiva de los derechos conquistados para garantizar una sociedad inclusiva.



Hasieran komentatu dut desgaitasuna dugun pertsonok egun ditugun eskubideak nola lortu diren jakin nahi nuela, eta nork lagundu duen horretan. Liburu honi esker, ulertu dut ez dela kasualitatea egun kaleak, eraikinak edo garraioak irisgarriagoak izatea. Edo hezkuntza arruntean ikasteko aukera izatea. Edo lan egiteko aukera gehiago izatea. Edo etxebizitza egokitua eskuratzeko aukera izatea gure bizi-proiektua gauzatzeko. Edo baliabide gehiago izatea gure ohiko inguruan geratuz gero, egoitzara joan beharrean.

Argi geratu zait eskubide horiek guztiak ez direla osaba Tomasek emanak, baizik eta lortu egin behar izan direla. Desgaitasuna duten pertsonak baztertzen zituen errealitatea eraldatzearen aldeko

konpromisoa hartu zuten pertsona eta erakunde ugarik lortu zituzten eskubideok. Egiaztatu ahal izan dut aldarrapen, bilera, kanpaina edo ekitaldi askori esker gainditu zela gizartean genuen ikusezintasun hori, orain goza dezakengun errealtatera iristeko.

Horregatik, elkarturen historia ezagutzeak eragiten didan lehenengo gauza desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde hainbeste konprometitu eta lan egin zuten pertsona eta elkarrekin esker ona eta aintzatespena dira. 1979ko otsailaren 25ean egin zen Koordinakundearen Lehenengo Biltzarrean adierazi zenez, helburuetako bat «urrituak haien senideak eta gizartea ditugun eskubideei buruz mentalizatzea, gizaki normalak baikara». 40 urteren

Al comienzo he comentado que quería saber cómo se han ido consiguiendo los derechos que disfrutamos ahora las personas con discapacidad física, y quiénes han ayudado en ello. Este libro me ha permitido comprender que no es casualidad que ahora disfrutemos de calles, edificios o transportes más accesibles. O que se nos permita acceder a la educación ordinaria. O que tengamos más posibilidades de trabajar. O que accedamos a una vivienda adaptada para desarrollar nuestro proyecto de vida. O que disfrutemos de más recursos si optamos por permanecer en nuestro entorno habitual en lugar de ir a una residencia.

Si algo me ha quedado claro, es que todos esos derechos no han caído del cielo, sino que han tenido que ser conquistados. Y lo han sido por muchas personas y asociaciones que se comprometieron por la transformación de una realidad que marginaba a las personas con discapacidad física. He podido comprobar que fueron muchas reivindicaciones, reuniones, campañas o actos los que permitieron ir superando esa invisibilidad que teníamos ante la sociedad, para llegar a la realidad que ahora podemos disfrutar.

Por eso, lo primero que me provoca conocer la historia de **elkartu** es un sentimiento de agradecimiento y reconocimiento hacia esas personas y asociaciones que tanto se comprometieron y trabajaron por los derechos de las personas con discapacidad física. En la convocatoria de la Primera Asamblea de la Coordinadora que se celebró el 25 de febrero de 1979 se decía que uno de sus objetivos era “mentalizar a los disminuidos, a sus familias y al resto de la sociedad sobre los derechos que tenemos como seres humanos normales”. Pasados 40 años, si la sociedad en su conjunto es consciente de que todas las personas tenemos los mismos derechos, es en buena parte gracias a esas personas y asociaciones que

ondoren, gizarte osoak baldin badaki pertsona guztiok eskubide berberak ditugula, batez ere herritar guztien berdintasunaren defentsan Gipuzkoan aitzindari izan ziren pertsona eta elkarteei esker izan da.

Baina aldi berean, nire ustez, desgaitasuna dugun pertsonak orain dela lau hamarkada zegoen errealitatearen oso bestelako errealitatea bizi dugunez, gure eskubideen defentsaren aldeko konpromiso horren lekukoa hartzeko erantzukizuna dugu, etorkizunean are gizarte inklusiboagoa eduki dezagun.

Izan ere, lortu dugun guzia gorabehera, bere unean jarri ziren helburuen lorpenean aurrera egin dela esan dezakegu, baina oraindik ere asko falta zaigu horiek lortzeko. Ez ditugu erabat bermatuta eskubide hauek: irisgarritasun unibertsalerako eskubidea, hezkuntza inklusiborako eskubidea, enplegu arrunterako eskubidea edo bizimodu independenterako eskubidea.

elkarturen historian parte hartu duten pertsona eta elkarteeek egindako lana inspirazio-iturri izan behar da desgaitasun fisikoa dugun pertsonok konpromiso pertsonala eta elkarte-mugimenduarekiko har dezagun, gure errealitatea eraldatu eta etorkizunean gure eskubideak defendatuko dituen erakunderik behar ez izateko. Horrek

esan nahiko luke aintzatetsita ez ezik, benetan bermatuta eta gauzatuta daudela bizitzaren eremu guztieta.

Ditugun eskubideak halabeharrez heldu beharrean lan konprometitu eta etengabekoaren emaitza izan baldin badira, gizarte erabat inklusiboaren utopia errealtitate bihurtzea ere gu guzion esku egongo da, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatu eta sustatzeko hartzen dugun konpromisoaren eta egiten dugun lanaren esku, eta oro har, aniztasuna aintzatetsi eta berdintasuna bermatzen duen gizartea lortzeko egiten dugun lanaren esku.

Ana M<sup>a</sup> Lozanok Bidean, Anaitasunaren aldizkarian, 1984ko martxoan esatten zuenez, «urritu fisiko guztiok parte hartu behar dugu. Gure aurrerapenaren egile sentitu behar gara eta beraz, ez ahaztu: elkartuago egon eta lehia baztertu behar dugu, doako zerbitzuaren sen zorrotzagoa izan behar dugu eta zerbait eskatzen digitenean seriotasunez erantzuten jakin behar dugu.

*Horrela bakarrik, parte hartuz eta denon arteko ekintza gure gain hartuz edukiko dugu gure bidezko aldarrikapenak exijitzeko eskubidea».*

fueron precursoras en Gipuzkoa de la defensa de la igualdad de oportunidades de toda la ciudadanía.

Pero al mismo tiempo siento que las personas con discapacidad física que disfrutamos de una realidad muy diferente a la que había hace cuatro décadas tenemos la responsabilidad de tomar el testigo de ese compromiso por la defensa de nuestros derechos, para que en el futuro podamos tener una sociedad más inclusiva aún. Y es que a pesar de todo lo conseguido, podemos decir que se ha avanzado en la consecución de los objetivos que se propusieron en su momento, pero que estamos lejos de alcanzarlos. No tenemos garantizados plenamente los derechos a la accesibilidad universal, a la educación inclusiva, al empleo ordinario o a la vida independiente, por poner unos ejemplos.

El trabajo que han realizado las personas y asociaciones que han protagonizado la historia de **elkartu** debe servir de inspiración para que las personas con discapacidad física nos comprometamos personal y asociativamente en transformar nuestra realidad para que en un futuro no sea necesario que exista una organización que defienda nuestros derechos. Eso significará que se encuentran no

solamente reconocidos, sino también garantizados y cumplidos de manera real en todos los ámbitos de la vida.

Si los derechos de los que disfrutamos no han llegado casualmente, sino que han sido fruto de un trabajo comprometido y constante, transformar en realidad la utopía de una sociedad plenamente inclusiva dependerá también de nosotras y nosotros, de nuestro compromiso y nuestro trabajo en la defensa y promoción de los derechos de las personas con discapacidad física, y en general, por alcanzar una sociedad que garantice la igualdad reconociendo la diversidad.

Como decía Ana M<sup>a</sup> Lozano en el Boletín Bidean de la Fraternidad de marzo de 1984, “nos tenemos que ver implicados todos los disminuidos físicos. Nos tenemos que sentir autores de nuestro progreso y por tanto, no lo olvidemos, tendremos que dar una imagen más solidaria, desechar las rivalidades, tenemos que tener un sentido más agudizado del servicio gratuito, sabiendo responder con seriedad cuando se nos pide algo”.

*Solo así, participando y responsabilizándonos en una acción común, tendremos derecho a exigir nuestras justas reivindicaciones”.*





>>> elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Federazio Koordinatzalea  
Federación Coordinadora de Personas  
con Discapacidad de Gipuzkoa

elkartu,  
nueva denominación

2019 >

